



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	MUSIKA ADIERAZPENA	Zikloa / Maila	BATX 2
Irakasleak	ITSASO GONZALEZ	Ikasturtea	2015-16

HELBURUAK	EBALUAZIO – IRIZPIDEAK
<p>1. Musika-lanak ahoz nahiz musika-tresnekin interpretatzea, bakarrik edo taldean, oroimenari, partituren irakurketari eta inprobisazioari dagozkien gaitasun eta trebetasunak garatzeko.</p> <p>2. Musikaren hizkuntza osatzen duten alderdi guztiak —harmonia, melodia, erritmoa, eraketa, forma, tenpoa eta dinamika— ondo erabiltzea, musika ulertu, interpretatu, iruzkindu eta sortzeko.</p> <p>3. Ondo afinatuz abestea, oinarrizko ahozko teknika garatzeko.</p> <p>4. Musikaren pultsua erritmo desberdinak landuz barneratzea, mugimenduaren koordinazioa garatzeko.</p> <p>5. Aldi bereko egitura eta garapen erritmiko eta melodikoak bakarrik nahiz taldean hauteman eta gauzatzea, entzumenaren eta mugimenduaren arteko bereizketa eta independentzia lantzeko.</p> <p>6. Musikaren hizkuntzaren oinarrizko osagaiak landu eta ezagutzea, musika-alor hauetan: popa, rocka, Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika. Horretarako, estilo horietako lanak entzun eta</p>	<p>1. Melodia edo abesti bat ahotsa ondo igorri izatea, bakarka nahiz taldean, akonpainamenduarekin nahiz akonpainamendurik gabe.</p> <p>1.1. Ea ahozko teknika erabiltzen duen, bakarka nahiz taldean ondo intonatu eta afinatu abesteko</p> <p>1.2. Ea ondo txertatzen den ahots-taldean, beste ahotsekin bat egiteko beharrezko baliabideak erabiliz</p> <p>1.3. Ea behar bezala intonatu duen pasarte edo melodia bat.</p> <p>2. Obra edo pasarte baten pultsua eta azentu periodikoa belarriaz ezagutzea, eta barneratzea, isilune laburretan hari eusteko.</p> <p>2.1. Ea pultsua hartzen duen erritmoa markatzeko ezinbesteko erreferentziatzat.</p> <p>2.2. Ea identifikatzen duen azentu periodikoa, konpasaren oinarria dena</p> <p>2.3. Ea ondo barneratzen duen pultsua.</p> <p>2.4. Ea ondo gauzatzen duen erritmoa, bakarrik nahiz taldean.</p> <p>3. Ariketa psikomotorrak egitea eta erritmo-egiturak inprobisatzea, bakarrik nahiz taldean,</p>



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

identifikatzea, norberaren errepertorioan sartu errepertorio hori aberasteko.

7. Hainbat testuingurutan garatutako musika-proiektu kolektibo eta diziplinartekoak diseinatzea eta proiektu horietan parte hartzea, taldearen barruan era bateko eta besteko ardurak hartuz eta talde-lana prestatzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko eta lankidetzan aritzeko gaitasunak garatuz, arte-produktu ona lortu eta gure burua alor sozialean garatzearen.

8. Dokumentazio- eta ikerketa-jarduerak gauzatzea; eta, horretarako, iturri bibliografikoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, lanen ezaugarri estetikoak eta estilistikoak eta sortu diren kultura-ingurunearekin dituzten harremanak azaltzeko. Eta, hori guztia, lexiko eta terminologia egokia erabiliz egitea

entzundako pasarte batean oinarrituta

3.1. Ea musikaren bidez garatzen duen gaitasun afektiboa

3.2. Ea nahi bezala inprobisatzen duen ezagutzen diren erritmo-formuletan oinarrituta, eta entzundako pasartearen konpasarekin bat eginez.

3.3. Ea ariketa psikomotorrak proposatu eta egiten dituen, ikuspegi kreatibo eta adierazkorretik parte hartuz

4. Melodia edo musika-forma laburrak bakarka nahiz taldean inprobisatzea, musika-hizkuntzaren hainbat alderdiri dagozkien arauetatik abiatuta.

4.1. Ea barneratzen dituen kontzeptu tonalak eta oinarritzko ereduak.

4.2. Ea musika-hizkuntzako elementuak modu kreatiboan erabiltzen dituen inprobisatzeko.

4.3. Ea ulertzen duen forma musikala kontzeptua, eta inprobisatzen duen haren gainean.

4.4. Ea txertatzen den taldean gainerako taldekideekin batera.

5. Entzundako eta interpretatutako obren berezitasunak zein diren belarriz antzematea, eta zehatz-mehatz deskribatzea.

5.1. Ea aise identifikatzen dituen obra baten zenbait berezitasun.

5.2. Ea identifikatzen dituen alde zuretik aukeratutako hainbat elementu: entzundako obretako erritmoak, melodiak, tonuak, moduak, kadentziak, formak, tinbreak, ekiteko moduak,



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

	<p>artikulazioak, etab.</p> <p>5.3. Ea entzundako obraren osagai behinenak deskribatzen dituen lexiko egokia erabiliz</p> <p>6. Musikari, dantzari edo edozein garaitako — gaur egungo edo iraganeko— artearen estetikari buruzko alderdi jakin bati buruzko informazioa bilatzea eskatuko duen lan erraz bat aurkeztea, argitasunez eta zorrotasunez.</p> <p>6.1. Ea berari erakargarri iruditzen zaion lanerako gaia aukeratzen duen.</p> <p>6.2. Ea banaka edo taldean lanak egiten dituen; eta, horretarako, iturri bibliografikoetara jotzen duen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituen.</p> <p>6.3. Ea eskolan landu ez diren musikaren eta dantzaren historiako alderdiak aurkitzeko eta ezagutzeko interesik baduen.</p> <p>7. Proposatutako adibide bat abiapuntu hartuta, eta azterketa edo iruzkin baten bitartez, musika eta dantza literaturako testuetarako oinarri gisa edo operan, balletean, zineman edo antzerkian drama areagotzeko bitarteko gisa erabil daitezkeela azaltzea.</p> <p>7.1. Ea ulertzen duen musikak eta dantzak duten eginkizuna, bestelako arteekin duten harremanean.</p> <p>7.2. Ea loturarik ezartzen duen musikaren eta dantzaren artean, eta bi horien eta operaren, zinemaren eta antzerkiaren artean.</p> <p>7.3. Ea proposaturiko adibideak lexiko egokia</p>
--	---



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

	erabiliz azaldu eta aztertzen dituen. 7.4. Ea bereganaturiko jakintza erabiltzen duen musikaren eta dantzaren historiaz ondorio koherenteak eta arrazoituak adierazteko.
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. ebaluazioa

- Bertsogintzaren ezaugarri orokorrak: neurria eta doinua, puntuak eta oinak, errimatze arauak.
- Musika osatzen duten elementu garrantzitsuenak — melodia, erritmoa, eraketa, forma, tempo eta dinamika— ezagutu eta erabiltzea, eta elementu horietan sakontzea, musika ulertu, interpretatu eta sortzeko.
- Pultsua, azentuak eta konpas bitar, hirutar eta lautarrak hauteman eta identifikatzea
- Ebaluazio amaierako proiektua: Herri mailan euskara, musika, eta dantza uztartuz Flashmob bat prestatzea.

2. ebaluazioa

- Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako abesbatzetarako erreperorioa abestea
- Kantu eta abesti zaharrak landu: *Urreko belontxu; Zazpi nobio; Santa Agedako koplak... Garaian kokatu*, Hiztegia eta bertako euskara aztertuko dugu, errima, helburu komunikatiboa,...
- Santa Ageda tradizioa ezagutu koplak sortuz, abestuz (bai klasean, zein ikastetxean eta herrian) eta instrumentuaz landuz
- Eraketa musikalak eta tresnen tinbreak hautematea, belarriz identifikatzeko entzundakoa edo interpretatutakoa

3. ebaluazioa

- Ahoz eta bakarka interpretatzea, musika-tresnez lagunduta zein ez
- Musika-piezak bakarka nahiz taldean interpretatzea, gelan dauden musika-tresnak erabiliz, tempoari eutsiz eta partiturako jarraibideak betez.
- Interpretaziorako oinarrizko jarraibideak: zuzendariaren keinuak ulertu eta interpretatzea, taldearen koordinazioa landuz
- Landutako erreperorioa jendaurrean interpretatzea, ezaugarri hauetan oinarrituz: autokontrola,



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

autoestimua garapena eta norberaren buruarekiko eta norberaren eta gainerakoen arte-
sorkuntzekiko errespetua

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erabiliko dugun metodologia aktiboa eta parte hartzeko izango da.

Orff musika tresnekin, boomwhackerarekin, ikasleek jotzen dakiten musika tresnekin, ahotsarekin, gorputzarekin ariketa erritmikoak eta melodikoak landu.

Koreografiak sortu eta landu

Musika eta estilo ezberdinak entzun, analizatu, letrak sortu sormena landuz

ERABILIKO DIREN BALIABIDE DIDAKTIKOAK

-Irakasleak prestatutako apunteak

-Partitura desberdinak

-Ordenagailua, kanoia, internet

-Musika tesna desberdinak: ORFF instrumentuak, teklatura.....

-Euskal kantagintza lantzeko, honako liburuetan oinarrituko gara: "Zer ikusi, ha ikasi"; "Uribe kostako Bertsolaritza 1900-1980", eta "Bizkaiko Bertsogintza"

-**Baliabide digitalak:** Musikarekin lotutako programazio informatiko desberdinak: Audacity, transcribe; adobe audition player; cubase. Webgune interesgarriak: ikasmus.net.au.net; youtube

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak,

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Kontuan izanda gure ikasleak entzule eta ekoizle izango direla, eguneroko lana eta partehartzea oso garrantzitsua izango da. Ikaslearen koadernoak, lanak, ariketak, laburpenak, sormena eta interpretazioa (kantagintza, dantza eta musika tresnak erabiltzean) ebaluazio tresnak bihurtuko dira. Hau dena aurrera eramateko, saio bakoitzeko behaketan oinarrituko gara.	-Klasean egindako jarduera praktikoak (Lanak, aurkezpenak, koreografiak, ariketa erritmikoak, kantagintza, musika tresnak....) %80a ▪ -Klasean izandako jarrera %20a Baloratuko da: parte hartzea klasean, eguneroko lana, gaiarekiko interesa, ikaskideei laguntzea, ideia berriak gelara ekartzea, gelako lan giroa ez etetea, bertaratzea, puntualitatea, materiala zaintzea, errespetua, ikastetxeak gelan jarritako bizikidetzaren arauak bete eta zaintzea, euskararen erabilera

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK (Indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema....)

KURTSOAREN KALIFIKAZIOA

Ebaluazio bat gainditzeko 5 atara beharko da. Horrela gertatuko ez balitz, berreskurapena bakarka planteatuko da, ikasle bakoitzaren beharrei aurre eginez. Orokorki lanen bitartez berreskuratuko da, eta bestalde, ebaluaketa jarraia ere garatuko da. Hiru ebaluaketen kalifikazioen batez bestekoa izango da kurtsorearen azken nota

Maiatzean, ohiko deialdian, azterketa bat egongo da. Honetan, landutako partitura/abesti bat interpretatu beharko da eta irakasleak emandako melodía baten gainean letra bat sortu klasean ikasitako teknikak erabiliz. Honetan, gehienezko nota 5 izango da eta idatzizko froga edukiko da kontuan soilik.

Ohiko deialdian gainditzen ez bada, Ekainaren ezohiko deialdian beste aukera bat egongo da gainditzeko.

OHARRAK

EBALUAKETA JARRAIA GALTZEA



URTEKO PROGRAMAZIOA

2015-16

Ikasle batek hutsegiteen %20 gaitzen baldin badu hiruhilabete batean, ebaluaketaz ebaluaketa ebaluatua izateko eskubidea galduko du (201/2008 EAeko Dekretua, 38.art) . Ebaluaketa gaitzeko ohiko edoeta ezohiko deialdiara aurkeztu beharko da.